

Martxoaren 17ra arte irekita Huhezinema film laburren lehiaketan lanak aurkezteko epea

2015/01/07

2015eko martxoaren 17ra arte, irekita egongo da epea Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdian lanak aurkezteko epea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Ikus-entzunezko ikasleek antolatzen duten lehiaketan, hiru sari egongo dira jokoan: Sail Ofiziala, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Ikasleen Lehiaketa eta Basque Culinary Center Lehiaketa. Finalerako aukeratutako lanen proiektzioak eta sari banaketa ekitaldia, bestalde, egingo dira 2015eko apirilaren 28tik 30era bitartean Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean.

Lehiaketan parte hartzeko interesa dutenek kontuan hartu behar dute zortzigarren edizio honek bi berrikuntza nagusi dituela:

- **Sail Ofizialeko sariak banatzeko modu berria.** Hala, lan finalista bakoitzak 200€ko saria jasoko du. Horrez gain, beste 3 sari emango dira: epaimahai ofizialaren Goiena Saria (800€), Ikusleen Saria (200€) eta lehiaketaren ikasle antolatzaileek emandako Aktore Onenaren Saria (100€).
- **Basque Culinary Center lehiaketa zabalagoa.** Aurrekoetan ez bezala, oraingo edizioan, Euskal Herriko edozein ikaslek izango du aukera sail horretan parte hartzeko.

Huhezinema ez da ohiko lehiaketa bat, izan ere, irakasleen laguntzarekin eta graduko *Kultur ekitaldien antolaketa* izeneko materiaren barruan, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailako ikasleek antolatzen dute sariketa.

Lehiaketako oinarriak, lanen bidalketen gaineko zehaztasunak edo aurreko edizioen gaineko informazio guztia bilduta dago lehiaketako webgunean: www.huhezinema.com



2014 urteko edizioko irabazleak.